

Donostian, 2017ko uztailaren 14ean

Guraso estimatuok:

Agiri honen bidez datorren 2017-2018 ikasturteari buruzko informazioa helarazi nahi dizuegu. Harrera egunean zuen semeak/alabak Gida Didaktikoa jasoko du, non gai hauek eta beste batzuk zehaztuko diren.

1.- Egutegia.

- **Harrera eguna: irailaren 7a:**
 - Goizeko 11:00etan 1.DBH eta 2.DBH.
 - Eguerdiko 12:00etan 3.DBH, 4.DBH eta 4.DK.
- Klaseak irailaren 8an goizeko 08:30etan hasiko dira.

2.- Ordutegia.

Hauspoa Proiektua dela eta ikasturte osoan ordutegi jarraia izango dugu, egunero 08:30etik 14:30era.

Arratsaldez Hauspoa Tailerrak izango dira.

3.- Jangela.

Zerbitzu honen funtzionamendua irailaren 11ean hasiko da. Informazio gehiago Gida Didaktikoan aurki dezakezue.

4.- Informazioa gurasoei.

Urrian, tutore bakoitzak gurasoekin Ikasturte hasierari buruzko bilera orokorra izango du. Bileren hauen datak ondorengo hauek dira:

Taldea	Eguna
1.DBH - 2.DBH	2017-10-18
3.DBH - 4.DBH 4º DC	2017-10-19

Ikasturtean zehar, zuen seme-alaben garapenari buruzko informazioa jasoko duzue. Honetaz gain, eta beharra ikusten duzuenean, seme-alaben tutorearekin elkarrizketatzeko aukera izango duzue, aurrez hitzordua telefonoz eskatuta.

5.- Ikasleen bertaratzea.

Zuen seme-alabak etortzen ez direnean, edo berandu iristen badira, beharrezkotzat jotzen dugu idatziz tutoreari jakinaraztea horretarako Ikastetxean dagoen agiria erabiliz. Gure aldetik, sistematikoki, zuen seme alaben asistentziari buruzko informazioa bidaliko dizuegu.

6.- Helbidea edota telefonoen aldaketa.

Datu hauetan aldaketaren bat izanez gero, mesedez, lehenbailehen jakinarazi idazkaritzan.

7.- Testu liburuak.

DBHko 1. eta 2. mailetan liburu solidarioak izango ditu ikasleak, Frantseseko liburuak ez. Azken hau, ikasle bakoitzak eskuratu behar du, testuliburuaren kudeaketa solidarioa programan parte hartu ala ez. Liburu hau hauxe da:

FRANTSESA	
1.Maila	1.Maila
Parachute 1 - Livre Santillana ISBN: 9788496597976	Parachute 2 - LIVRE Santillana ISBN: 9788490490891
Parachute 1 - Cahier d'exercices Santillana ISBN: 9788496597990	Parachute 2 – Cahier d'exercices Santillana ISBN: 9788490490952

Honetaz gain, DBHko 1. eta 2. mailetan erabiliko ditugun lan-koadernoak ere ikastetxeak erosiko ditu.

8.- 1., 2. eta 3. Ikasturteko gairak gabeko ikasgaien azterketak.

	Irailak 19 Asteartea	Irailak 20 Asteazkena	Irailak 21 Osteguna
15:30	Euskara eta Literatura (115 gelan) Gaztelera eta Literatura (116 gelan)	Musika Geografia eta Historia (109 gelan)	Ingelera (115 gelan)
17:00	Matematika (114 gelan)	Biologia-Geologia (115 gelan)	Teknologia Fisika-Kimika (Teknologia gelan eta 114an)

Oharra:

- Azterketa egin ahal izateko, EZINBESTEKOA da udarako lanak dagokion irakasleari ekartzea.

9.- Ikasmaterialen zenbatekoa.

Ikasmaterial eta zenbait ekintzaren zenbatekoa (90€) kontu korrontean kargatuko da uztailearen azkeneko astean.

Besterik gabe, ikasturte hau emankorra eta atsegina izango delakoan agurtzen zaituztegu.



ZUZENDARITZA

Oharra: **Babesgabetasun-zantzuak jakinarazteko betebeharra.**

«Ikastetxe honek honako hau jakinarazten die gurasoei: Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Eusko Jaurlaritzaren Legearen arabera (otsailaren 18ko 3/2005 Legea), ikastetxean uste bada ikasleren bat babesgabetasun-egoeran dagoela susmatzeko zantzuak daudela; hau da, uste bada ikasle horren zaintzaileek beren funtzioak betetzen ez dituztela, ikastetxeak egoera hori jakinaraziko die gizarte-zerbitzuei, legeak hala aginduta. Jakinarazpena eginez gero, horren berri emango zaio ikaslearen familiari».